

JUAN BAUTISTA BUSCA: LEHENENGO EUSKAL SOINUJOLEA

Egilea: Gorka Hermosa¹

Juan Bautista Busca Pretto (1839-1902) 1859an etorri zen Gipuzkoako Goierri eskualdera, Piemontetik, trenbidearen eraikuntzan lan egitera, eta akordeoi bat ekarri zuen soinean. Gaur arte bederen, bere izenez ezagutzen dugun Euskal Herriko lehenengo akordeoilaria da. Artikulu honetan hobeto ezagutuko dugu gizon handi hau, zeina ez zen soilik nabarmendu akordeoiaren aitzindari izateagatik, baizik eta baita bere bizitzako beste hainbat alderdi esanguratsurengatik ere.

Akordeoiaren iritsiera Euskal Herrira

1829an Demianek Vienan asmatu zuenetik, akordeoia azkar asko hedatu zen munduan barrena. Esate baterako, badakigu, Parisera eta Madrilera, 1831n eta 1836an iritsi zela, hurrenez hurren². Baina nola ailegatu zen Euskal Herrira? Hainbat teoria daude: (Monichon, P. 1985; Hermosa, G. 2012)



Juan Bautista Busca, Elias bere semeak marraztuta

- Rafael Aguirreraren arabera, akordeoia, Euskal Herrian sartu zuten Beasain-Ormaiztegi trenbide zatia eraikitza 1859an kontratatutako Alpeetako langileek. Horietako bat izan zen Juan Bautista Busca. (Aguirre, R. 1992)
- Javier Ramosen arabera, 1835-1840 urteetatik Madrilera inportatu ziren aurreneko akordeoiak Frantziatik ekarritakoak ziren. Paris eta Madril arteko errege-bidea Irun-Tolosa-Beasain-Zumarraga-Bergara-Arrasate-Gatzaga-Gasteizen barrena zihoan, eta horregatik dio Ramosek sinesgaitza dela akordeoia ez ezagutu izana Euskal Herrian 1859 aurretik. (Ramos, J. 2004)
- Iñaki Linazasoren arabera, 1831n Pisonnat mekanikoaren Pariseko tailerrean asmatu eta hilabete gutxitara, Pasaian ainguratutako bergantin baten ontzigainean entzun zen

¹ Euskera itzulpena 2019ko urriaren 23an Gotzon Aranburuk egin, Zumarragako udalaren bitartekaritzarekin. Jatorrizko artikulua gaztelaniaz idatzia, 2019ko uztailaren 23an bukatua eta 2020ko urtarrilaren 7an zuzendua.

² Akordeoiaz Espainian dagoen lehenengo aipamena 1836ko uztailaren 2koa da, etxez aldatzera zihoan familia batek orduko hartan iragarki bat jarri baitzuen “Diario de Madrid”en, hainbat gauza salgai zeuzkala jakinaraziz, horien artean akordeoi bat. Datu hori 2012an argitaratu genuen “El acordeón en Cantabria” liburuan lehenengoz.

akordeoiaren soinua. Linazasorok ez du inolako frogarik ematen, eta beraz baliteke kontakizuna poetikoa izatea historikoa baino gehiago, baina ez litzateke izango erabat sinestezina horrela gertatu izana. Beste alde batetik, nahiz eta akordeoia ez zuen Pisonnatek asmatu 1831n Parisen, egia da datu horiek zirela garaiko entziklopedia askotan azaltzen zirenak, eta beraz Linazasoren dokumentazio akatsa barkagarria da zinez. (Linazasoro, I. 1969; Ramos, J. 2004)

Javier Ramosek argitaratuko dokumentu batek egiaztatzen duenez, 1860an, Busca iritsi eta urtebete besterik ez zela, bazen Bilbon akordeoiaren birtuoso bat: D.F. Erezuma, musikari eta geografoa. Horri buruz esaten zuten talentua zuela «nahi duena izateko. Konpositore moduan, argitara eman dituen bals eta dantza batzuegatik gomendatuta dago, eta pieza arinak izan arren, nahikoa dira arte jainkotiarraz daukan ezagutzaz eta bere gustuaz ideia egokia emateko. Instrumentista gisara, akordeoia jotzen entzun dioten guztiak harrituta bezain txundituta geratu dira, ikusirik zer nolako zukua ateratzen dion instrumentu honi, zeina erabiltzen jakinez gero adierazkorrenetako bat den, eta nekez izango da Erezuma jaunak bezain ondo erabiltzen duenik. Baina gizon hori, bide batez, bilbotarra dena -eta bilbotar izan behar oztopoak gainditzen ez jakiteko- musika adina ezagutzen ditu marrazkigintza, historia eta geografia; gainera, dohaina dauka bere lanei onerako buru-argitasuna duten gizonei baino ez dagokien originaltasun-zigilua emateko». (Ramos, J. 2009)

Esan dezakegu beraz, nahiz eta seguru asko akordeoia askoz lehenago ere ezaguna zen Euskal Herrian, izenez ezagutzen dugun lehenengo akordeoilaria Juan Bautista Busca Pretto dela, zeinak 1859tik jotzen zuen Goierriin Piemontetik ekarria zuen akordeoia. (Aguirre, R. 1992; Busca, A. 2013; Ramos, J. 2004; Ramos, J. 2009)

Juan Bautista Busca Prettoren musika-ibilbidea

Juan Bautista Busca Prettoren musika-ibilbidetik dokumentalki ezagutzen duguna haren biloba Jose Maria Busca Isusi (1916-1986) Zumarragako idazle ezagunaren aipamena da, honek askotan ekartzen baitzuen gogora, lagunartean, bere arbasoak akordeoiaz azaltzen zuen kalitate musikala. Badakigu, halaber, Cesnolako (Italia) haren jaiotetxean akordeoia jotzen zela. Rafael Aguirreraren arabera, akordeoi diatonikoa Euskal Herrira ekarri zuten trenbide-langile alpetarretako bat izan zen, eta harekin alaitzen zituen haien festak eta langileentzako prestaturiko behin-behineko “kanpamentuetako” gau luzeak (kantinak, ospitaleak, okindegiak...), trenbidea eraiki bitartean altxatutakoak.



*Juan Bautista Buscaren argazkia,
1890 ingurukoa*

Aguirreraren arabera, akordeoi haien soinu kartsu eta melodikoak zirrara handia eragin zuen inguruko biztanleengan, eta hauek azkar asko egin zuten bere, alde batera utziz ohiko txistua eta alboka. Aguirreraren teoriari jarraiki, esan ahal izango litzateke sarritan jo izango zuela Zegaman 1862 eta 1864 artean eduki zuen tabernan, baita Zumarragan 1864tik aurrera gobernatu zuen tabernan ere. (Cruz Jaka, A. 1991; Aguirre, R. 1992; Busca, A. 2013)



Zumarragako Kalebarreneko etxe hauetako batean zegoen Juan Bautista Buscaren taberna



Buscaren taberna zegoen Kalebarreneko etxeak, XX. mendean

Juan Bautistaren jaiotetxean, Cesnolan (Italia), daukate oraindik hemen erakusten dugun akordeoia. Alvaro Buscari (Juan Bautistaren ondorengoari) Grazianak (Juan Bautistaren anaia Antonio Busca Paretoren ondorengoak) eman dizkio argazkiak. (Busca, A. 2013)



Juan Bautista jaio zen Cesnolako (Italia) etxean aurkitutako akordeoiaren argazkiak.

Juan Bautista Busca Prettoaren biografia

Cesnolan jaio zen, seguruenik 1839ko maiatzaren 23an. Gurasoak Giuseppe Busca eta Margarita Pretto ziren. Sei anaia eta arrebak izan zituen. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

Cesnolan piemontera hitz egiten da, frantsesaren eta italieraren nahasketa bat, eta frantsesa ere bai, eta horregatik Jean Baptiste jarri zioten Juan Bautistari bataioan. 1859an Goierriara iristean espainiaratu egin zuen izena (erabiltzen zuen sinadurak, hemen azaltzen denak, erakusten duen moduan). (Cruz Jaka, A. 1991; Aguirre, R. 1992, Busca, A. 2013)


Bere anaia Laureanori 1894ko otsailaren 14an bidalitako gutun batetik hartutako sinadura.

1859. urtean, 20 urte zituela, trenbidea eraikitzeko hainbat enpresa frantziar Aostako bailaran egiten ari ziren errekrutatzean izena eman zuen, eta Gipuzkoako Goierri eskualdera etorri zen, gutxienez beste berrogei lagunekin. (Cruz Jaka, A. 1991; Aguirre, R. 1992, Busca, A. 2013)

“Hermanos Pradines” enpresak eman zion ziurtagiriak dioenez, Juan Bautista 1859ko martxoan kontratatu zuten, meatzari aritzeko, eta lan hori egin zuen 1861eko maiatzera arte, orduan postari izatera pasa baitzen. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

1862an “Pradines”ek Zegamara eraman zituen bere langileak, horien artean Juan Bautista. Eta Zegaman zela, 1862ko apirilaren 28an Josefa Antonia Sagastizabalekin ezkondu zen. Gizon ekintzailea zenez, handik gutxira Txanberonea edo Osina Berri izeneko kantina ireki zuen emaztearekin batera, Oazurtza izeneko tunelaren hegoaldeko sarbidetik 500 bat metrora (Madril-Irun lineako tunelik luzeena berau, 3.200 metrokoa). Dirudienez, inguru horretan dezenteko giroa zegoen, eta dakigunez Juan Bautistak berebiziko laguntza eman zuen horretan, bere kantina alaiarekin. Bikoteak bi alaba izan zituen Zegaman, biak ere umetan hilak. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

Trenbide zati honen lanak 1864an bukatu ziren, eta ondoren Zumarragara etorri ziren, Zubiaurre kaleko 21. zenbakira, eta ordura arteko ostalaritza jardunari segida emanez taberna bat ireki zuten. 1864-1869 urte tartean aldizka aritu zen Zumarraga-Beasain zatia eraikitze lanetan eta tabernan. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)



Zumarragako tren geltokia 1864an.

Karlistaldien urteak ziren eta Juan Bautistak, italiar hiritar izaki, bazeukan bere taberna eremu neutral bihurtzerik. Hori zela eta, liberalak gerturatzen zirenean bandera liberala jartzen zuen, eta bandera karlista beste aldekoak inguruan zebiltzanean. Diotenez, Santa Kruz apaiza eta bere guardia beltza bezero ohizkoenetakoak zituen, handik igarotzean beti egiten baitzuten tabernatik sartu-irten bat. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

Senar-emazteek zazpi seme-alaba izan zituzten Zumarragan 1866 eta 1879 artean; Jose, Juan Inazio, Elias, Felipa, Juana, Antonino eta Laureano. Esaten dutenez, sonatuak izaten ziren familiaren bazkalondokoak, seme bakoitzak instrumentu bat jotzen zuen eta. Hala, Juan Bautistak akordeoia joko zuen, Josek klarinetea, Juan Inaziok pianoa. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)



Seguru asko 1890ean ateratako argazki honetan, Juan Bautista Busca Pretto behean eskuinera, bere emazteaz eta Jose, Laureano, Juan Inazio, Juana, Elias eta Antonino seme-alabez inguratuta.

Tabernari aritzeaz gain, *ebakitzaille* (harakin) lanbidean ere espezializatu zen. Badirudi 1868an osoki haragi-hornitzaile (errematatzaile) ari zela Zumarragan, udal-artxibategian ageri denez. Garai hartan, Zumarragak 1.279 biztanle zituen. Salerosgaien sartu-irtenagatik zergak kobratzen zituen Udalak, eta salaketa-idatzi ugari dago kontu horren inguruan, aipatu zergak ez ordaintzeko trikimailuak zirela eta sortuak; badirudi Juan Bautistak eskarmentua zuela jokaera horietan. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

1886an, ondoren Busca Etxea izenez ezagutuko zen Kale Berriko eraikinera aldatu zen bere familiarekin, eta etxabea harategia jarri zuen, “italianokua” esaten ziotena. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)



Eskuineko etxean, Soraluze kaleko 2. zenbakikoan, bizi izan zen Juan Bautista Busca, eta han zeukan “italianokua” (italianoarena) deitzen zioten denda.

Jakina da Zumarraga eta Urretxu bereizten dituen Urola ibaia zeharkatzen zuen lau oholeko zubi txiki bat eraiki zuela -haren etxeak ibaira ematen baitzuen- beste aldean zeuzkan baratzeetara pasatzeko behar zuelako aitzakiarekin; Udalak kendu eginarazi zion, haragi-kontrabandoa egiteko erabiltzen zuen susmoz, baina ondoren kableak bota zituen, helburu berberarekin. Liskar ugari gertatu zen. Badirudi arazoak goia jo zuela 1880ko abuztuaren 25eko arratsaldeko sei eta erdietan, orduan agertu baitziren etxean, udal-epailearen aginduz, herriko errematatzaillea eta zutargiak zeramatzaten lau guardia, miaketa egitera; azkenean, ospina egiteko zahagi bat ardo baino ez zuten aurkitu, eta une jakin batean hark “lapurrak” deitu zienez, salaketa jarri zioten eta auzibidea abiatu, baina lagunaren eraginari esker zigorrik gabe geratzea lortu zuen. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

1888 urtean Italiara bidaiatu zuen, dirudienez gurasoen herentziazatik zegokion zatia anai-arrebei saltzeko. Oso ondo konpontzen zen anai-arrebekin. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

Sambor el 1^{er} Setiembre 1888

Mi muy querida y estimada Esposa
aprovecho la ocasion por tener que
esperar en esta 5 oras; i llegare alas 11
de la mañana y no puedo salir asta las
4 de la tarde i venido asta qui muy
bien el comestible todavia ay y gracias
muchas a las peras que no como sino
una en cada comida y me quedan tod
avia tres. el salchichon muy bueno y
guisadísimo;

no llegare segun me dicen a turin asta
los cuatro de la mañana ~~con~~que
mañana para el media pueda que
llegue a casa; seguir bien y no acuse
mala sangre que de Turinere a muer
do de las expresiones a todos de la
famillia demi parte
en otro sera mas largo
tu Esposo

Juan Bautista Busca

Gizon berezia zen eta badirudi urrezko belarritakoa jarrita ibiltzen zela Zumarragan. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

Pertsona sonatu honen beste bitxikerietako bat zura lantzeko zeukan afizioa da, esate baterako makilak edo zutabeak. Hona hemen haren lanen lagin batzuk: (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)



Juan Bautista Buscak egindako hainbat tailla

1900eko urtean, Itarte eta Azpiazurekin elkartuta, zumea lantzeko industria bat altxatzea erabaki zuen, mementoan “Busca y Compañía” saskigintza-lantegi moduan abiatu zena. Altxatutako eraikina handitu egin zuten 1905ean, nabe bat gehituta benetako fabrika bihurtuz, zeinak 1968ra arte iraungo zuen. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)



“Busca y Compañía” zume-lantegia eta bertako beharginak 1910ean Zumarragan.

1902ko irailaren 25ean hil zen, goizeko zortzietan, «buruko isuri seroso» baten ondorioz, 63 urte zituela.

Hona haren ondorengo asko, 1911ko argazki batean:



1: Josefa Antonia Sagastizábal Zabalo
2: Elías Busca Sagastizábal
3: Laura Alberdi García
4: Juanita Busca Sagastizábal
5: Laureana Busca Sagastizábal
6: Antonino Busca Sagastizábal
7: Casimira Babilondo Oyarzábal
8: Juan Ignacio Busca Sagastizábal

9: Casimira Otaegui
10: José Busca Sagastizábal
11: M^a. Jesús Busca Otaegui
12: Socorro Busca Otaegui
13: José Busca Otaegui
14: Pedro Busca Otaegui
15: Carmen Busca Gabilondo
16: Carmen Busca Alberdi

17: Bautista Busca Otaegui
18: M^a. Josefa Busca Gabilondo
19: Juan Ignacio Busca Gabilondo
20: Juanita Busca Gabilondo
21: Pepita Busca Alberdi
22: Elías Busca Alberdi

Familiaren baloreen erakusle, 1894an Laureano semeari idatzitako eskutitza, gaur arte argitaratu gabea eta bere hereniloba Usua Busca Aguirreri esker iritsi zaiguna.

Zumarraga el 14 de Febrero de 1894

Querido Hijo Laureano Masparen

ya recibimos tu Grata con todos los Papeles de tus
exámenes de todo lo cual te doy un millón de
gracias; procura todo cuanto puedes en continuo
así que seras un día dichosa y bien visto de
Dios y de los ombres; Savras que tu Hermano
Inacio es Conpuesto en la Ermandad ho patre
nato de San Luis Gonzaga de Madrid un coro
titulado el Carnaval; y segun dicen el periodico
el etdalit que es una obra mejor de lo mejor
y que fue cantada y etplaudida con mucho entu
siasmo a gran delirio cosa que no tienen suficien
te palabras para expresar su merito; y astia
el fincio de su santidad al concluir la dicha
funcion se le fue y lo etbrazo; conque ya puedes
considerar como estaria de contento; el periodico lla
mado El etdalit es periodico que escriben los mismos
Congregantes de San Luis que se publica 2 veces a la
semana y todo el producto suyo es para el Santo
Padre Leon 13; Nosotros todos buenos a Dios las
gracias como asi deseamos que encuentre la presente
Elio y Antonino estan bien; Sin mas por ay tu
Padre Juan Bautista Busca

Juan Bautistaren eragina Zumarragako kulturaren eta politikan

Haren birbiloba Alvaro Buscak kontatu digunez, sarritan jotzen zuen akordeoia etxeko bazkalondoetan, eta hala kutsatu zion musikarekiko grina bere seme Juan Inazio Busca Sagastizabali, organo-jotzaile eta konpositore ezaguna hau, batez ere erlijiozko musikarena. Zumarragan jaio zen 1868an eta Zarautzen hil, 1950eko martxoaren 7an. Pianoa eta armonia Gorritirekin ikasi zituen, Tolosan, eta ondoren Madrilen gainontzeko musika-ikasgaiak, Jimenorekin, Mendizabalekin eta Arrietarekin. Enrique Morerak ere eman zion hauspoa. Madrileko Santa Barbarako eta San Francisco el Grandeko parroketako organo-jotzaile lanpostua bete zuen. Erlijio kutsuko lan ugari konposatu zituen, eta sona eman zion XXIII. Nazioarteko Biltzarraren Eukaristia Himnoak, *Cantemos al amor de los amores, cantemos al Señor*, estatuan oso ezagun egin baitzen. Euskal orfeoiek sarritan izaten dituzte Sagastizabalen abesbatza-piezak bere erreperitorioetan, horien artean *Bi euzko abesti* ederra. (Cruz Jaka, A. 1991; Aguirre, R. 1992; Busca, A. 2013; Sagardia, d-g)



*Juan Ignacio Busca Sagastizabal
konpositorea, Juan Bautista
Buscaren semea*



*Jose Maria Busca Isusi idazlea,
Juan Bautista Buscaren biloba*

Eskualdean itzal eta garrantzia oso nabarmena eduki zuen Juan Bautistaren beste seme bat Jose Busca Sagastizabal izan zen (1866-1937), Zumarragako alkatea izandakoa 1920 eta 1923 artean, orduan kargua utzarazi baitzioten, Primo de Riveraren diktadurak gobernua hartu eta Espainiako udal guztiak desegin zituenean. Euskal folklorea eta musika oso gustukoak zituen, eta gaztetan herriko txarangako kide izandakoa zen, klarinetea joaz. (Cruz Jaka, A. 1991; Busca, A. 2013)

Sendian bizi zen kultur giroak isla izan zuen familiako beste gizon handi batengan ere: Jose Maria Busca Isusi zen, Juan Bautistaren biloba, 1916ko irailaren 6an Zumarragan jaioetako gastronomo eta idazlea, Madrileko Unibertsitatean Natur Zientzietan lizentziatua. Izaera liberal, kultua, jakin-minduna eta heterodoxoa zen, euskal gastronomiaz garaian

idatzitako liburu garrantzitsuenetako batzuen egile izan zen, eta hedabideetan sarritan argitaratu izan ziren haren kolaborazioak. Aranzadi Natur Zientzia Elkarteko presidenteorde izan zen, Gastronomiazko Euskal Anaiartearen sortzaile eta presidente, baita barazki izoztuak ekoizteko lehenengo enpresaren sortzaile ere (Martzilla, Nafarroa). 1986ko uztailaren 16an hil zen. Zumarragako Udalak Herriko Seme Kutun izendatu zuen 1984an. 1986tik aurrera, betiko Santa Lutzi jaietako Buzkanta Lehiaketa haren ohorez egiten da. 1996an haren izena jarri zioten herriko auzo bati. Zeukan liburutegi espezializatua Gipuzkoako Aldundiak erosi zuen 1993an. (Cruz Jaka, A. 1991; Arozamena, d. g.)

Eskualde honetan Juan Bautistak ereindako akordeoi-haziak ekarriko zuen, handik urte gutxira, Zumarraga izatea Euskal Herriko aurreneko trikitixa taldearen sorlekua (akordeoi diatonikoa panderoz lagunduta): Zumarragako Trikitixa, 1920an jaioa eta musika honen lehenengo grabaketaren autorea, 1960an. Euskal musikarik «benetakoenetako» bat izatera iritsi da egun trikitixa. (Aguirre, R. 1992; Busca, A. 2013; Ramos, J. 2004)



Zumarragako Trikitixa

Oso handia izan da Urretxuren eta Zumarragaren garrantzia trikitiaren munduan. Zumarragako Trikitixaz gain (Joxe Oria panderojoleak sortu, eta bertan aritu dira, urteetan zehar, haren bilobak Inazio, Seberen eta Miguel Urteaga panderojoleak, gehi Joxe Urteaga soinu-jolea, baita hauen hainbat seme eta biloba ere, hala nola Mikel Alustiza panderojolea eta Kepa Urteaga edo Gari Lizarraga soinu-joleak), beste batzuk aipa ditzakegu, esaterako Esteban Larrañaga (1944-2009, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen buru honen aurreneko lau urteetan, ezkondu zenetik eta hil arte Urretxun bizi izan zen), edo Iñaki Garmendia “Laja” Azkoitiko trikitilari mitikoa (1944-2019), zeinak herriarekin harreman handia izan zuen eta Zumarragako Mikel Alustiza panderojolea izan zuen bikotekide azken urteetan.

Trantsizioaren urteetan trikitilari handiak jaio ziren, besteak beste Edurne Iturbe (trikiti pieza berrien konposizio-txapelketako finalista hainbat urtetan, EITBren lehiaketako irabazle hiru urtez, eta egun Zumarragako “Sekundino Esnaola” Musika Eskolako zuzendaria), Olarte anaiak, Elortza anaiak, Zaldua anaiak, Iñigo Etxaniz eta Ioritz Zufiria, Eugenio Gisasola “Lutxurdio”, Iñaki Larrañaga (panderoa jotzen du Gari Lizarragarekin), eta baita gazteagoak ere, hala nola Uxue Kerejeta eta Andoni Oruesagasti... (Ramos, J. 2004; Aguado, F. 2009; Zaldua, A. 2017, 2018)



Urretxu eta Zumarragako hainbat trikitilari, 2014ko Herri Operan

“Soinu handiaren” (akordeoi kromatikoa) munduan ere nabarmena izan da Urretxuren eta Zumarragarren garrantzia. Bertan, hazi zen artikulu honetan askotan aipatu dugun autore bat: Javier Ramos Martínez, 1967an jaioa eta seguru asko akordeoiari buruzko Espainiako historiagile esanguratsuenen, edo bederen gaiari buruz liburu gehien idatzi dituenen. Iruñeko “Pablo Sarasate” kontserbatorioko eta Madrileko “Moreno Torroba” kontserbatorioko irakasle, eta pedagogian lehendabiziko urratsak egin zituen garaian Zumarragako “Akordeoilari” akordeoi-akademiako irakasle ere izana. Azken honetan, lerro hauek idatzi dituenak ere irakasle izan zuen, berau ere akordeoilaria baita, Iparragirrerren jaiotetxetik 200 metrora jaioa Urretxun, eta Zumarragako Elizkalen hazia, Euxebio taberna zegoen atarian, non, diotenez, jaio zen Zumarragako Trikitixa. Mundua zapi bat da... eta Zumarraga are gehiago.



Javier Ramos, Zumarragako bere "Akordeoilari" akademiako ikasleekin 1990ean.

Beraz, inolako ezbairik gabe esan dezakegu Juan Bautista Busca Pretto, Euskal Herrian izenez ezagutzen dugun lehenengo akordeoilaria izateaz gain, gizon handi bat eta azken 150 urteotan Zumarragan itzal handienetakoa izandakoetako bat izan zela.

BIBLIOGRAFIA

- AGUADO, Fco. Javier (2009): “Sentido adiós a Esteban Larrañaga”. 2019/7/11n ateratakoa helbide honetatik:
<https://www.diariovasco.com/20090719/alto-urola/sentido-adios-esteban-larranaga-20090719.html>
- AGUIRRE, Rafael: “*Trikitixa*”, 1.-193. or. Villabona (Gipuzkoa): Martin Musika Etxea eta Kutxa, 1992.
- ALGORA, Esteban: “*El acordeón en la España del s. XIX*”, “*Música y Educación número 46 de Junio de 2001*”tik ateratakoa. Madril (Espainia): Música y Educación, 2001.
- AROZAMENA AYALA, Ainhoa: “Busca Isusi, José María”. 2019/7/11n ateratakoa helbide honetatik:
<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/busca-isusi-jose-maria/ar-34261/>
- BILLARD, François & ROUSSIN, Didier: “*Histoires de l'accordéon*”. Castelnau-le-Lez (Frantzia): Editions Climats, 1991.
- BUSCA, Alvaro (2013): Busca familiaren web orrialdea. 2013/5/29an ateratakoa helbide honetatik: <http://alvarobusca.webcindario.com/>
- CRUZ JAKA, Angel (1991): “Los Busca de Zumarraga”. 2019/8/15ean ateratakoa helbide honetatik: <http://www.juansiso.es/LibrosBusca/jaca4.pdf>
- DEMIAN, Cyrill (1829): “*Accordion patent*” (Karl & Martin Wayde-k itzulia eta Henry Doktorsky-k argitaratua). 201/5/27an helbide honetatik ateratakoa:
<http://www.ksanti.net/free-reed/history/demian.html>
- HERMOSA, Gorka: “*El Repertorio para Acordeón en el Estado Español*”, 1.-137. or. Hernani (Espainia): Hauspoz Argitaletxea, 2003.
- HERMOSA, Gorka: “*Oposiciones para acordeonistas*”, 1.-449. or. Santander (Espainia): Ediciones Nubero, 2008.
- HERMOSA, Gorka: “*El acordeón en Cantabria*”, 1.-108. or. Santander (Espainia): Ediciones Kattigara, 2012.
- HERMOSA, Gorka: “*The accordion in the 19th century*”, 1.-102. or. Santander (Espainia): Ediciones Kattigara, 2012.
- HERMOSA, Gorka: *Alvaro Buscari emailez egindako elkarrizketa pertsonala*. 2013ko martxoa eta ekaina artean egina.
- HOWARD, Rob: “*An A to Z of the Accordion, Vol.3*”, 1.-240. or. Stockport (Britainia Handia): Robaccord Publications, 2007.
- JACOBS, Helmut C.: “*Der Komponist und Pianist Hans Brehme*”, 1.-176. or. Bochum

(Alemania): Augemus, 2007.

- KASSEL, Richard (2006): *"The organ: an encyclopedia"*. New York (U.S.A.): Douglas E. Bush & Richard Kassel, 2006. 2010/11/11an ateratakoa helbide honetatik:

<http://books.google.es/books>

[id=cgDJaeFFUPoC&printsec=frontcover&dq=organ+an+encyclopedia+bush&source=bl&ots=nNS32feU4I&sig=kQ_G_CTKccZkLTY1wZY8lrY5FPA&hl=es&ei=2hbbTO2uHNT94Aa1_KDWCA&sa=X&oi=book_result&ct=result&resnum=7&ved=0CFIQ6AEwBg#v=onepage&q&f=false](http://books.google.es/books?id=cgDJaeFFUPoC&printsec=frontcover&dq=organ+an+encyclopedia+bush&source=bl&ots=nNS32feU4I&sig=kQ_G_CTKccZkLTY1wZY8lrY5FPA&hl=es&ei=2hbbTO2uHNT94Aa1_KDWCA&sa=X&oi=book_result&ct=result&resnum=7&ved=0CFIQ6AEwBg#v=onepage&q&f=false)

- LINAZASORO, Iñaki: *"La Voz de España"*, 1969/3/15. *"La trikitrixa de Zumarraga y su entorno"* Javier Ramosen liburutik hartua.

- LLANOS, Ricardo: *"I. atala: Érase una vez... sobre la historia del acordeón y su repertorio"*, 13-16 orrialdeak, *"Pun txan txan"*etik hasita. Gasteiz (Espainia): Norberak argitaratua (Banaketa: Erviti), 2004.

- MIREK, Alfred: *"Estudio sobre el bayan en la Unión Soviética"*, Jose Maria Lopezek agindutako gaztelarazko itzulpena. Mosku (Errusia), 1969.

- MIREK, Alfred: *"Reference Book on Harmonicas"*, 1.-63. or. Mosku (Errusia): Norberak argitaratua, 1992.

- MONICHON, Pierre: *"Petite Histoire de l'accordéon"*, 1.-158. or. Paris (Frantzia): E.G.F.P., 1958

- MONICHON, Pierre: *"L'accordéon"*, 1.-251. or. Payot, Lausanne (Suitza): Van de Velde, 1985.

- RAMOS, Javier (1995): *"El acordeón, origen y evolución"*, *"Revista de Folklore n.º.173"*koa, 155.-161. or. 2010/5/5ean ateratakoa, helbide honetatik:
<http://www.funjdiaz.net/folklore/07ficha.cfm?id=1457>

- RAMOS, Javier (1995): *"El acordeón, origen y evolución"*, *"Revista de Folklore n.º.173"*koa, 155.-161. or. 2010/5/10ean ateratakoa, helbide honetatik:
<http://www.funjdiaz.net/folklore/07ficha.cfm?id=1457>

- RAMOS, Javier: *"Zumarragako trikitrixa eta bere ingurua (1920-2004)"*, 1.-121. or. Zumarraga (Gipuzkoa, Espainia): Kutxa eta Zumarragako Udala, 2004.

- RAMOS, Javier: *"Enrike Zelaia; Infernuko hauspoa"*, 1.-277. or. Urretxu (Espainia): norberak argitaratutakoa, 2005.

- RAMOS, Javier: *"El acordeón en España hasta 1936"*, 1.-260. or. Irun (Espainia): norberak argitaratutakoa, 2009.

- RAMOS, Javier; GUIDO, Walter; VELO, Yolanda; DANNEMANN, Manuel; IRIARTE MARTÍNEZ, Fernando; GEORGE, Leslie R.; SZARÁN, Luis; LUNA, Margarita eta GARCÍA CARBÓ, Carlos (1999): *"Acordeón"*, *"Diccionario de la Música Española e Hispanoamericana Sociedad General De Autores y Editores"*. 2010/1/22an ateratakoa,

helbide honetatik: <http://www.terra.es/personal3/tmc000/his/vozac/jramos.htm>

- SAGARDIA, Angel: Juan Ignacio Busca Sagastizabal. 2013/5/26an ateratakoa helbide honetatik: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/34253>

- SIGURÐSSONAR, A.S. (datarik gabea): “*Harmonikusafn*”. 2011/4/23an ateratakoa, helbide honetatik: <http://nedsti.is/userfiles/file/PDF/heildarharmonikusafn.pdf>

- STRAHL HARRINGTON, Helmi & KUBIK, Gerhard: “Accordion” 56.-66. or., “*New Grove Dictionary of Music and Musicians*” etik hasita. Bigarren argitalpena. Londres (Ingalaterra): MacMillan, 2000.

- ZAVIALOV, V.R.: “*El acordeonista: Del folklore a la alta profesionalidad*”, Jose Maria Lopezek agindutako gaztelerazko itzulpena, 1.-30. or. Voronej (SESB), 1977.

- ZALDUA, Asier (2018): “Trikitilari harrobiko harri bitxiak”. 2019/7/15ean ateratakoa, helbide honetatik: <https://goierri.hitza.eus/2018/07/26/trikitilari-harrobiko-harribitxiak/>

- ZALDUA, Asier (2018): “Edurne Iturbe, trikitilari de Urretxu” (2018). 2019/7/15ean ateratakoa, helbide honetatik: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2017/10/24/vecinos/urola-garaia/el-problema-que-tiene-hoy-en-dia-la-trikitixa-es-la-falta-de-profesores#Loleido>

- ZALDUA, Asier (2017): “Emocionante despedida al trikitilari Joxe Urteaga”. 2019/7/15ean ateratakoa, helbide honetatik: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2017/04/11/vecinos/urola-garaia/emocionante-despedida-al-trikitilari-joxe-urteaga#Loleido>

- “*Accordions Worldwide History*” (datarik gabea). 2009/2/15ean ateratakoa, helbide honetatik: <http://www.accordions.com/history/index.aspx>

- “*Diario de Madrid*” 1836/7/2koa. 2011/3/16an ateratakoa, helbide honetatik: <http://bdh.bne.es/bne/search/HemerotecaSearch.do>

- “*Hipótesis*”. Periódico de costumbres y literatura, Bigarren Urtea. 1860/7/6, 48. orrialdea. Liburutegi Nazionalaren hemeroteca digitala. Javier Ramosen “El acordeón en España hasta 1936” liburutik ateratakoa.

ESKERTZAK

Álvaro Busca, Usua Busca Aguirre, Laura Garcíandía Busca, Edurne Iturbe, Javier Ramos, Asier Zunzunegi, Antonio Prada, Jon Maia, Aitor Lizarazu, Izaskun Larrañaga, Nerea Errasti, Gotzon Aranburu eta Zumarragako Udala.

Zumarragako Udalaren laguntzaz idatzitako lana. 2020ko urtarilaren 13an bukatua.

EUSKERA ITZULPENA:

Gotzon Aranburu